


## DIRU-ITURRIAK

Gure enpresak zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo den gure bezeroa eta eskaintzen diogun produktu edo zerbitzuaren truke zenbat den bere potentziala jakinarazi nahi dugu.

Ordainketa bakarra izango da gure diru-sarrera nagusia, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratortzen direnak. Hau da, bezeroek gure dendako zerbait erosten dutenean, momentuan ordainduko dute, ez dira hileko ordainketak izango. Bestalde, webgunean online erosteko aukera ere izango dute, baina beti ordainketa momentuan eginda. Ezingo da ezer zatika edo berandu ordaindu. Arropa denda arrunt bat bezala izango da, unean bertan ordaintzen dena.

Diru-sarrerak sortzeko modu anitzak dauzka gure enpresak, ordainketa bakar baten bidez izango denez, gure enpresak hainbat modutara lor ditzake irabazi iturriak, esate baterako, publizitatea eginez, baina gehienbat aktiboen salmentatik edukiko ditugu diru-sarrerak. Lortuko dugun diru-sarreraren portzentai handi bat aktiboen salmentekin lortuko dugu.

Aktiboen salmenta enpresaren diru-sarrera da, hain zuzen ere, diseinu bakarrak eta eskusiboko arropa pertsonalizatuak izango dira gure enpresaren arropa guztia. Gainera, ordainketa bakarreko diru-sarrerak dira.



Grafiko honetan ikusi daiteke nola 2014tik, neurri handiak gora egin dutela merkatuan eta portzentaian ere. Taila handiak dira gehien eskatzen direnak eta erabiltzen direnak. Horregatik, sortu dugu enpresa hau, behar izan bat ikusi dugulako, jende askok behar dituztelako neurri handiko arropak. Beraz, oso ondo etorriko zaigu, uste dugulako enpresak funtzionatuko duela eta diru-iturriak gora egingo dutela.

Iturria:expansion.com

<b>KOSTU FINKOAK</b>	
• Langileen soldatak	1.300 €
• Alokairua	1500 €
• Materiala	1.100 €
• Publizitatea (online webgunea)	1.100€
Guztira:	4.000€

Ondorengo taula honetan, enpresako kostuak adierazi ditugu. Nahiz eta irabaziak izan ez ditugu ahaztu behar enpresak izango dituen kostu finkoak: alokairua, soldatak, publizitatea, materiala...